



Isuntzabekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Isuntza / Bekoa / Isuntzandikoa
Ahozkoa: Ixúntze Bekóa / Ixúntze Bekúe



43° 10' 22"

2° 35' 51"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza biko baserria da honako hau, eta lehendabiziko aipu dokumentala Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu 1704. urtean: *Ysunza de Yuso*. Gerora, *Ysuzagaurre* (1826, BAHF, A372/15.) moduan agertzen da, eta baita *Ynzunza andicoa* (1903, DJE, 7/ 113. or.) moduan ere. XX. mendean forma horrekin agertzen da dokumentazioan. 1859ko izen-degian *Yzunzas* (1859, BUA, Nmcr.) aurki daiteke, zonalde berean dauden *Isuntza* (**Ikus Isuntza**) eta *Isuntzadeskarga*

(**Ikus Isuntzadeskarga**) baserriei erreferentzia eginez.

Auzotarren artean erabilitako ahozko formetan, *Ixúntze Bekóa* eta *Ixúntze Bekúe* dira nagusi. Jasotako informazioaren arabera, jendartean *Isuntza* izenez ezagutzen dira bi etxeak, goikoa (*Isuntza* baserria) eta behekoa. Baserri hau eta *Isuntzadeskarga*) jabe berarenak ziren, eta, dirudienez, hark egin zuen *Sanpedro txiki* ermita (**Ikus Done Petri Txiki**).

Inskripzio batek adierazi mo-

“... la casería de Ynzunza-andicoa o de yuso... en la barriada o cofradía de Eitua en jurisdicción de Berriz, ocupa cuatrocientos diez y siete metros cuadrados de planta solar y el edificio de enfrente sesenta y tres metros y ochenta y cuatro decímetros. La vivienda principal de dicha casa, ó del lado Oriente, consta de zaguán común, ante cuadra, cocina y dormitorios y cuerdas en el piso llano; encima otros dos dormitorios, camarote y pejar. La otra vivienda del lado Oeste consta de cuadra en el piso llano y de cocina y tres dormitorios en el piso alto, con sobrado o camarote encima de estas piezas; y con el edificio accesorio indicado que consta de cuadra abajo y pejar arriba...”
DJE 7/113 or. (1903)

toponimia

Isuntza baserri multzoko beheko aldean dagoen etxea. XVIII. mendean bazegoen etxe hau, baina itzulita ageri da izena “Ysunza de Yuso” eta ondorioz ezin dugu jakin lehenago be(he)koa deitzen zuten edo beitia edo beaskoa, inguruan arrunta den bezala. Etxeak ez duenez deiturarik eman pentsatu behar dugu XVII. mendean edo beranduago sortu zela.



BUA / Mapa topografikoa, 1933

duan, XVIII. mendean jasotako baserria da, 1723an, nahiz eta aurreko mendean eraturako tipologiakoa izan. Honetan, txikiagoa den arren, gertu dagoen *Isuntzarekin* zor handia du, baita *Berrizbeitiarekin* ere. Fatxada nagusiaren ezker aldean jasotako eranskinak orijinala itxuraldatzen badu ere, ondo antzeman daitezke ohiko hiru gorputzak, harrizkoak alboetakoak eta erdikoa, atarte zabal baten gainean, egurrez eta adreiluzko hormekin armatua. Alboetako gorputzetan harlandua erabili zuten kantal guztietan eta leiho ertzetan, eta harlangaitza,

hormetan. Hasieran hauek luzitu eta pintaturik egongo ziren, lehengo solairuan ikusten den legez, baina gaur egun behekoan bistara ateratu dute. Erdian daukan atartea oso zabala da eta egurrezko dintelari eusteko, koloma toskanarra erantsi zioten, hormigoiaz konponduta ageri dena. Gainean, zurezko eta adreiluzko egitura irekitako bi leihoak ikus ditzakegu, lehenengo solairuan, eta txori-tokiak, ganbaran. Egurrez adreilu gratatuekin ezkutatuta dauka.